

BIODIVERSIDAD FUNDAZIO PUBLIKOAK ARRANTZA ETA AKUIKULTURAKO IRAUNKORTASUNA SUSTATU ETA BULTZATZEKO LAGUNTZEN DEIALDIA EGIN DU 2017an PLEAMAR PROGRAMAN KOKATUTA, ITSAS ETA ARRANTZAKO EUROPAR FUNTSAK ERE FINANTZATUTA

Interneteko helbidea: <http://fundacion-biodiversidad.es/es/convocatorias/convocatorias-de-ayudas/convocatoria-pleamar>

1.-DEIALDIAREN XEDEA:

Pleamar Programak Espainiako arrantza eta akuikultura sektorearen iraunkortasuna sendotu nahi du, itsas ekosistemak eta horietan egiten diren jarduera iraunkorrak salbatzeko helburua duten erakunde publiko eta pribatuen arteko lankidetzak bultzatuz.

2.-EKINTZA EREMUA ETA EGITASMOEN GAIAK:

Egitasmoek gutxienez ondorengo baldintzetako bat bete behar dute:

- Autonomiaz gaineko izaera izan eta, beraz, Erkidego edo Hiri Autonomo bat baino gehiagotan egikaritu.
- Estatuaren eskumeneko itsas ingurune batean garatua izan.
- Estatu legedian oinarritako izaera duen espazio babestu jakin eta arautuetan garatu.

UPV/EHUK eskaera aurkez dezakeen ardatzak:

- 1. ARDATZA: BERRIKUNTZA
 - o 1.1.- Berrikuntza – Arrantza
 - o 1.2.- Berrikuntza - Akuikultura
- 5. ARDATZA: HONDAKINAK
- 6. ARDATZA: SENTSIBILIZAZIOA

(Kontsultatu deialdiko 2. oinarria)

2.-ESKAERAK AURKEZTEKO EPEA

2017ko maiatzaren 5 arte, 14:00etan.

3.-LAGUNTZEN EZAUGARRIAK

3.1.-Egikaritzeko mugaeguna:

Egitasmoa egikaritzeko epea **urtebete** izango da **gehienez**.

3.2.-Zuzkidura ekonomikoa:

Ardatzaren arabera aldatzen da. *(Kontsultatu deialdiko 2. oinarria)*

Pertsona onuradunak, espresuki, FEMPeK edo FBk finantzatzen ez duten ehunekoaren zatia finantzatzeko betebeharra hartu behar du. Edonola ere, egitasmoaren gutzizko zenbatekoaren % 15 jarri behar du gutxienez. *(Kontsultatu deialdiko 5. Oinarriko taula).*

Egitasmo hauek ezin dute Europar Batasuneko beste funtsen finantzaketarik izan, ezta FEMPea ere beste diru laguntza edo programen barruan. Ez du eduki ahal izango ere Europa, nazio, autonomia edo tokiko beste diru laguntza publikokoren finantzaketarik ere.

3.3.-Finantza daitezkeen gastuak: *(Xehekiago deialdiko 10. oinarrian)*

3.3.1.-Finantza daitezkeen gastutzat hartzen dira egitasmoa egikaritu eta hura garatzeari zuzenean lotuta daudenak. Arrazoizko gastuak izan behar dira zenbatekoan, aurrekontuan sartuak behar dute, eta egitasmoa egikaritzean egindakoak izatea, baita horien frogagarria aurkeztu baino lehen ordainduak ere.

3.3.2.-Oro har, ondorengoak finantzatu ahal izango dira:

- **Langile kostuak:** Laguntzaren xedeko jarduera egiteko bereziki eta espresuki kontratatu eta lan kontratuan hala agertutako langileen kostuaren % 100 finantza daiteke. Langile propioaren kostua proiektuan jardundako ehunekoaren arabera finantza daiteke, txosten teknikoan adierazitakorekin bat etorriz, eta inoiz ezin da egon lan kostuaren % 60tik gora.
- **Dieta gastuak, desplazamenduak eta alojamendua**
- **Kanpoko laguntzak:** Azpikontratazioak egin daitezke, betiere haien ehunekoa egitasmoko guztizko aurrekontuaren % 50tik gora ez badago.
- **Inbentaria daitekeen materiala.**
- **Material suntsikorra.**
- **Zeharkako gastuak:** Egitasmoari egotzitako langileei buruzko zuzeneko kostuen % 15 izango dira.

4.-PROZEDURA

Deialdi honek bi fase ditu: "eskaera" fasea eta "aurre-aukeraketa" fasea.

4.1.-I FASEA: ESKAERA FASEA:

Pertsona eskatzaileek Internetez bete behar dute formularioa, eta eskatutako datu guztiak eman, ondorengo estekan:

<https://aplicaciones.fundanet.es/Biodiversidad/convocatorias/contenido/Midentificacion.asp>

Beharrezko dokumentazioa (Fundazioak emandako formatu ofizialen arabera):

- Legezko ordezkariak sinatutako diru laguntza eskaerako adierazpena.
- Erakundearen datuak eta egitasmoaren datuak adierazten dituen eskaera formularioa.
- Esparru logikoa.
- Aurrekontua xeheki.
- Aurreikusitako giza baliabideak.
- Kronograma.
- Lankidetzan aritzeko bazkideen (baldin baleude) konpromiso eskutitza.

UPV/EHUn eskaerak aurkezteko prozedura:

MUGAEGUNA	ARDURADUNA	IZAPIDEA
2017ko apirilaren 7a Data horretatik aurrera, ezingo da bermatu eskaera behar bezala izapidetzea	Pertsona ikertzaile nagusia	"I. Eranskina" convocatorias.dgi@ehu.eus -era bidali, proposatutako ikertaldeak berrikus dezan.
2017ko apirilaren 24a	Ikerketaren Arloko Errektoreordetza	Lantaldearen berrikuspenaren emaitza eta langileria propioaren kostua jakinarazi.
2017ko maiatzaren 4a	Ikerketaren Arloko Errektoreordetza	Ikerketaren Arloko Errektoreordetzak sinatutako eskaera hura egin duen pertsona ikert. nagusiari bidali, gainerako dokumentazioari erants diezaion.
2017ko maiatzaren 5a, 14:00etan.	Pertsona ikertzaile nagusia	I FASEKO ESKAERETARAKO MUGAEGUNA. FBren webgunera sartu eta dokumentazio osoa igo. Behin dokumentu guztiak bidalita, frogagiria inprimatu eta convocatorias.dgi@ehu.eus -era bidali dokumentazio guztiarekin batera.

4.1.-II FASEA: ONARPENA, EBALUAZIOA:

(Ikus deialdiko 3.2 eta 3.3 oinarriak)